

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### KUARTANGOKO UDALA

#### **Ibilgailuen 2019ko errolda kobratzea**

Iragarki hau argitaratu ondorengo hamabost egun baliodunetan jendaurrean egongo da trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga ordaindu behar dutenen 2019ko errolda, interesdunek aztertu eta egoki deritzeten oharrak aurkeztu ahal ditzaten.

Jendaurrean egongo den 15 egun baliodun horietan trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga ordaindu behar dutenen erroldaren aurkako alegaziorik aurkezten ez bada, udalak zerga kobratzeari ekingo dio.

2019ko martxoaren 1etik martxoaren 31ra arteko egun baliodunetan (biak barne) trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaindu behar dutenen 2019ko erroldari dagozkion aurtengo ordainagiriak prest egongo dira borondatezko epean ordaintzeko.

Zerga hori ordaindu behar duten zergadunek udalaren diruzaintzan egin ahal izango dute ordainketa adierazitako epean, 09:00etatik 14:00etara.

Era berean, zergadunei gogorazten zaie ordainketa banku edo aurrezki kutxetan helbideratu dezaketela.

Epe hori igarotakoan, premiamenduko betearazte bide administratiboa abiaraziko da, halaxe xedatzen baitu Zergabilketarako Arautegi Orokorrak. Kobratu beharrekoari, berriz, ehuneko 20ko errekarua ezarriko zaio. Errekargu hori eta epearen luzapena bateragarriak dira.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Zuhatzu Kuartango, 2019ko otsailaren 8a

*Alkatea*

*EDUARDO FERNANDEZ DE PINEDO*